

# Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2001eko azaroaren 9a / 560. zenbakia



## Udalerriko landaretza aztergai

ORAIN ETA HEMEN: SAN JOSEPE HARROBIA ITXIKO DUTE/7 • KULTURA: ARGAZKI LEHIAKETA/15



# Edertasunaren Gida

**CARMEN**

**Ile apaindegia  
Solariuma**

Ferrerias, 50  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 03 63

## Hileko trikimailua

*Ilea ez dezazun galdu, zer egin dezakezu?*

- Ilea lehorgailua dagokion neurrian erabili.
- Ez ezazu ilea oso tenkatua.
- Puntak moztu hiru hilabeteetan behin.
- Ez ezazu xanpu edo ileko produktu oldarkorrik erabili.
- Gehi itzazu C eta B bitaminak eta burdin mea eta zinka zure eguneroko dietan.

*Jose Antonio*

**GIZONEZKOEN  
ILE APAINDEGIA**

Otalora lizentziatua, 22-behea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 42 10

Ireki berria!!!

**A  
U  
S  
A  
R  
T**



Ile apaindegi mistoa  
Estetika zentroa - Txaro Carrizo

Iturriotz kalea, 24. Tel.: 943 77 30 60 / 943 77 21 58

**JADE**  
ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala, 21-B • ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31

*Lore*



Olarte, 10 • ARRASATE • Tel.: 943 79 52 50

Lurrindegia eta estetika zentrua

KORA O'NEAL Ayer HR CLARINS BIOTHERM VALMONT

*M L*  
ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1  
behea  
(Grupo San Juan)  
Tel.: 943 79 79 65

**SUSi**  
ILE APAINDEGIA

Garibai, 3-etxabea  
Tel.: 943 79 50 27

**Richi** ile apaindegia



C/ San Vicente Ferrer, 2-1°.  
(Grupo San Juan)  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 10 06

**ILEA**

Ferrerias, 14. 943 79 87 62

**aitor**

Gizonezkoen ile apaindegia  
Otalora, 14 • 20500 ARRASATE

Tel.:  
943 79 01 39  
615 78 19 63



## KALEINKESTA/ Euruakin praktketan hasi zara? Informaziño nahikua dagoela uste dozu?




**BEÑAT OLABE**  
Ikaslie



**JOSEFA DELGADO**  
Jubilaue



**MIKEL GOROSTIZA**  
Ikaslie



**IGNACIO FERNANDEZ**  
Jubilaue



**IGOR SANTIAGO**  
langillie



**MARGA APAOLAZA**  
langillie

Ondiokan euruakin ez dot bat be praktikau. Etxien badago bankuek bieldutako informaziñue, baiñe egi-xe esan, moneta aldaketaren kanpaiñari ez dutzet kasu haundirik egin.

Badauket eurua ibiltten ikesteko gogue, baiñe ondiokan ez dot ezer egin. Pertsona nagusixoi memori-xiek kale egitten doskunez, ez naz atrebidu, baiñe egin biherko dogu.

Entzun asko egin dot, baiñe ondiokan gutxi praktika dot. Berba asko egin da, baiñe nere ustez, informaziño gutxi emun da. 166 pezeta inguru balixo daue-la bakarrik dakit.

Ez dot bat be praktikau euruakin. Azken baten, euruakin hasten garenien ikasiko dogu benetan zelan ibilli. Kontue da orduen ez dogula eukiko beste erre-medixorik.

Nere ustez, irratixen, tele-bisiñuen-eta nahikua informaziño emun da moneta aldaketaren gaiñien. Nik denda bat dauket, eta bel-dur apur bat emuten dust, baiñe ohittuko gare.

Nere ustez, informaziño gutxi emun daue, eta eurua iristen danien golpie hartuko dogu. Gaiñera, argi dago txartuen pasauko dauienak pertsona nagusi-xek izengo diela.

### TXALOAKETATXISTUAK



**TXALOAK SAN ADRESKO KULUNKAK** San Andresen, herri eskolaren alboan, kulunka txukun hauek jarri dituzte. Alboan eskola egonda, eta bestela ere, auzoan txikiendako halako baliabidea jartzea oso txalogarria irudituz zaigu. Gaur egun, badirudi umeak ez direla kalean ibiltzen eta ez direla kalean jolasean ibiltzen. Horrelakoak jarritz gero, ziur umeek probetxua hartuko dietela./I.B.

### ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /8

KIROLA /10

GAZTE GARA GAZTE /14

#### Erdialdekoen batzarra

Alde zaharra oinezkoendako dela-eta, erdialdekoek proposamenak egin dizkiote Udalarri.

#### Isidor Ugarteri elkarrizketa

Arrasateko karateka Ovedon izan da asteburuan Euskadiko selekzioarekin lehiatzen.

#### Ekitaldiak gatzetxean

Oraingo astebururako kontzertua, antzerkia eta kale agerraldi baterako irteera antolatu dituzte gazteek.

### ASTEKODATUA

# 10

#### GOL EGIN DITU MONDRAK ETXKO BI PARTIDUTAN

Hamar gol sartu ditu Mondra futbol taldeak Atxabalpen jokatutako azkeneko bi partiduetan. Etxeko taldeak ez zuen denboraldia ondo hasi, baina argi dago gauzak aldatu egin direla.

### BESTEKEESANA

**“ Sabecok Gasteizko Arriagako atean duen supermerkatuan izan nintzen erosketa batzuk egiten.**

**Kreditu-txartelarekin ordaindu nahi izan dut. Horrelakoetan ohikoa den bezala, kutzazainak nortasun-agiria eskatu dit. Nik euskal nortasun-agiria erakutsi diot. Kutzazainak, orduan: 'El otro'. Nik behako zorrotzaz begiratu eta horrelakorik inoiz ez zaidala gertatu esanaz batera, 'bestea' eman nion. (...) Ez dakit kutzazainaren jokaera propio berea izan den edo Sabecoren politika den. Nik oso argi dudana da Sabecoren ez naizela gehiago sartuko eta ozenki salatu nahi dut jokaera antieuskaldun hori. Nire erabateko boikota, beraz, Sabecori eta euskaldunoi begirunerik erakusten ez diguten guztiei. Ask!**

**TXIPI ORMAETXEA**  
GARA/01-10-30

### HERRITARRENBERBAK/ Amaia Martiartu



#### Euskal Herritik Kaliforniara

**A**naaaaaaaaaa!!!!!!! Zer moduz Frisco-n? Lehengo egunian Emakumeak Euskal Herriko Historian izeneko ikastarua hasi nauen, eta Utzunekin eta Eiderrekin komentetan, esan nutzien edukiña baiño interesantia-goa zala han alkartu zan emakume taldea, ondionkan, behintzat. Gehixenak Santa Marinako formazio zentroko etxekoandak izen die. Talde honek zera gogorarazi eusten: Arrasaten dagoen bi munduak ondiokan zein aislaute dagoen eta guk, bertako euskaldunok, gure interes propiuen kontra emigrantien mundua zein abandonate daukagu ondiokan. Are gehixago horren moduko taldea emakumez osatuta egotian. Aurkezpenian euren kejak eta sujerentziak apuntatzerakuan, *Goienkariak* diskriminatu egiten zittuela esaten eustien, eta ni, oso minduta,

egixa zala onartu nauen. Nire miña, hala eta be, ez dator "Altokaria" bat faltan dogulako, euskara normalizetan gehixen egin ahal daunen borondate hutsagaittik, ordea. Benetan hau euskaldundu nahi izen bada, emakume honeik eta euren familixakuak etorri zienian euskara ikasteko benetako aukerak izan behar zittuen, horrek dakarren baliabide eta guzti; dohaiñeko eskola intentsibuak, diru inzentiboak, eta nik ze dakit zein beste motatako

**“Prioridade bihurtu daigun emigrantien mundua euskaldunketia, harein mundua oso abandonata daukogu-eta”**

programak eskeiñita. Ezaguketan dogun "Konekta zaitez" programa pijo hori modukuak, adibidez.

Hortaz, hemendik aurrera prioridade bihurtu daigun emigrantien mundua euskaldunketia. Gure intereserako da eta ikastaroko emakumiak benetan *Goienkaria* euskaraz irakur ahal izatia gura daue.

Ana... to be continued.  
Gora Santa Marinako emakumiak.

**Arrasate**

Otalora Lizentziaduna z/g  
20500 ARRASATE

Tel.: 943 71 25 11  
Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA  
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA  
Ubane Madera,  
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA  
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA  
Arantazu Lagunilla,  
Izaskun Bolinaga,  
Natali Martinez  
Imanol Elortza

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
SS-1124/88

ISSN  
0214-4654

TIRADA  
7.000 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Aramaioko  
Udala



**GUARDIAKOFARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 9**  
M. Corcuera, M. Aranbarri 1..... 943 79 22 26
- ZAPATUA, 10**  
J.A. Irizar, Erguin 11..... 943 79 12 39
- DOMEKA, 11**  
L. Amezua, Santa Marina 32..... 943 79 09 74
- ASTELEHENA, 12**  
I. Zabala, Zarugalde 42..... 943 77 16 30
- MARTITZENA, 13**  
A. Ruiz, Maala 31..... 943 79 14 09
- EGUAZTENA, 14**  
A. Morales, Araba etorbidea 17..... 943 79 18 65
- EGUENA, 15**  
A. Azkoaga, Ferrerías 1..... 943 79 15 15

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

- ERIETXEAK**  
Arrasateko Eskualde-Ospitalea... 943 03 53 00  
Igualetoia... 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea:  
Gizonak... 943 79 39 00  
Emakumeak... 943 79 44 11  
Buru osasunerako zentroa... 943 79 90 11

- LARRIALDIK**  
SOS Deiak... 112  
Gurutze Gorria... 943 76 55 76  
DYA... 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**  
Guardiako medikua... 943 46 11 11  
Astelohenetik  
egubakoitzera... 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan... 14:00etatik 08:30era  
Asteburu eta jai egunetan... egun osoa

- Arrasate**  
Astelohenetik  
egubakoitzera... 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan... 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:  
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
  - Espezialitateak... 943 03 53 11
  - Ikuskaitzailea... 943 03 52 52
  - Kanpoko kontsultak... 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**  
Gipuzkoako ambulanziaz... 943 45 87 44

- ERTZAINZA**  
Arrasate... 943 79 71 99

- SUHILTAILEAK**  
Udal taldea... 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaile burua... 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde-Parkea... 088

- MATXURAK**  
Urak (Udal zerbitzua)... 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero)... 943 12 01 62  
Gasa... 900 40 05 23  
943 79 78 44

- GARRAIOAK**  
Taxiak... 943 79 12 22  
PESA... 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**  
Iturbide egoitza... 943 79 72 11  
Abaroa jubilatuen egoitza... 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**  
Monterron... 943 77 01 05

**MEZAK**

- |  |   |
|--|---|
| <b>San Joan parrokia</b>   | <b>San Andres eliza</b>   |
| Zapatua<br>19:00 (elebiduna)   | Zapatua<br>19:00 (elebiduna)  |
| Domeka<br>09:00 (gaztelaniaz)<br>11:00 (gaztelaniaz)<br>12:30 (elebiduna)  | Domeka<br>10:00 (elebiduna)<br>11:00 (euskaraz)<br>12:00 (gaztelaniaz)<br>13:00 (gaztelaniaz) |
| <b>San Frantzisko eliza</b>  | <b>Santa Teresa eliza</b>   |
| Zapatua<br>19:00 (elebiduna)   | Zapatua<br>19:00 (elebiduna)  |
| Domeka<br>09:00 (euskaraz)<br>10:00 (gaztelaniaz)<br>11:00 meza nagusia (euskaraz)<br>12:30 (gaztelaniaz)<br>19:00 (gaztelaniaz) | Domeka<br>10:30 (gaztelaniaz)<br>11:30 San Isidron (euskaraz)<br>12:30 (gaztelaniaz)          |
| <b>Uribarri parrokia</b>   | <b>Santa Marinako eliza</b>   |
| Zapatua<br>19:00 (elebiduna)   | Jai egun bezpera eta zapatua<br>19:00 (gaztelaniaz)   |
| Domeka<br>11:30 (euskaraz)<br>12:30 (gaztelaniaz)  | Domeka<br>12:00 (gaztelaniaz)   |

**OHARRAK**

**BIHARAMUNEKO PILULAREN GAINEKO BERBALDIA**

Udal Sexologia Zerbitzuak eta Emakume Kontseiluak azaroaren 15ean, eguena, biharamuneko pilularen gainean berbaldia antolatuko dute. Osoko bilkuren aretoan, 18:30ean. Agurtzane Ormaza sexologoak berba egingo du.

**IKUSKIZUNAK GAZTETXEAN**

Gaur, azaroak 9, MCD eta Banda Munizipala taldeek kontzertua eskainiko dute gaztetxean, 21:30ean. Azaroaren 11n, domekan, berriz, Juanlu Escudero *Rie! soy un calavera* antzez-lana eskainiko du 18:30ean, doan.

**BEGIRALEENDAKO DEIALDIA**

Txatxilipurdik deialdia egin du Txikilandian begirale moduan lan egiteko. Azaroaren 30a baino lehenago eman beharko da izena.

**LUDETEKA IBILTARIA**

Azaroaren 10ean, zapatua, ludoteka ibiltaria abian jarriko dute San Andresko herri eskolan.

**ELIKADURAREN BERBALDIA**

Azaroaren 15ean, eguena, *Modaren eragina elikaduran* berbaldia egingo da AEDko elkartearen, 19:00etan Ekin elkarteak antolatuta.

**AEDrenAGENDA**

**MENDIRA PERRETXIKO BILA**  
Zahar Berrik mendi irteera egingo du bihar, perretxiko bila joateko. Arbolapetan, 09:30ean.

**ANTZERKI IKASTAROA**

Bihar, 10:00etan, antzerki ikastaroa hasiko da Gazteluondon. Interesatuak, Gazteluondora bertara jo.

**URBANOENORDUTEGIA**

- Gorostizatik Eroskita**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazuri, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, Ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.  
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**ORAINDELA 10URTEARRASATEN**

**Larreako etxebizitzak eztabaidagai dira oraindik**

Larreako babes ofizialeko etxebizitzaren proiektua dela eta, azken egunotan zurrumurru ugari entzun da, baita Udalaren eta Proginsaren jokaerarekiko kegak ere. Lanek izan duten atzerapenez gain, Jaurilaritzak prezioak igo egin ditu.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

**"Ankalarua"**



Txanka mehea. Hanka meheak dituena. Sin. *Ankame, txankame.*  
—*Ankameia be baita ankalarua be bai.*

**ARRASATE IRRATIA FM 107.7**



**Musikarik berriena Arrasate Irratian**

Eguerdiko 12:00etatik aurrera, albistegia bukatutakoan, musikarik berriena izango da entzungai Arrasate Irratian. Hortaz, plazaratu berri diren kantuak entzun gura izanez gero, herriko irratan duzu horretarako aukera.

Bestalde, astean eskainitako elkarrizketa batzuk berriro entzuteko aukera izango da asteburuan. Xalbadorren 25. urteurrena gogoratuz, Patxi Goikoleari egindako elkarrizketa izango da errepikatuko dugunetako bat. Patxi Xalbador bertsolaria eza gutzuteko aukera izan zuen. Horrez gain, eztiaren gaineko elkarrizketa ere entzungai izango da.

**Udaltzainen lanaren gainean**

Herriko udaltzainen lana zelakoa den jakiteko asmoz, udaltzain bi etorriko dira Arrasate Irratia.

Martitzenean, goizeko 10:00etatik aurrera, solasaldia izango dugu udaltzain lanetan dabiltzan lagun birekin.

Horrekin batera, astelehenen, Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoen azken lana izango dugu hizpide. *Altza Porru!* izenburua jarri diote azken lanari eta hamabi kantuz osatua dago. Gainera, Behobia-Donostia lasterketan arrasatearrek izan duten parte hartzeaz ere jardungo dugu astelehen goizean. Bestalde, astelehen egunean interneten gaineko tartea izango da.

**HAUGIROA!**

MINIMOA Egubakoitza, 2	1°C
MAXIMOA Zapatua, 3	23°C
ASTEKO EURIA (l/m <sup>2</sup> )	14,7 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 31	17°C	7°C	3,1 l/m <sup>2</sup>
Eguena, 1	17°C	6°C	- l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 2	18°C	1°C	- l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 3	23°C	2°C	- l/m <sup>2</sup>
Domeka, 4	16°C	2°C	11,3 l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 5	13°C	5°C	0,3 l/m <sup>2</sup>
Martitzena, 6	16°C	7°C	- l/m <sup>2</sup>

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



**ASTEKO PROGRAMAZIOA**

- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**  
09:00 Albistegia  
09:30 Igo autobusera  
11:30 Albistegia  
12:00 Musika  
14:00 Errepikapena

- ASTELEHENA**  
21:00 Maiuskulaz idatzitako Rock-a

- MARTIZENA**  
21:00 Hi bizi hadi

- EGUAZTENA**  
21:00 Hitz eta pitz

- EGUENA**  
21:00 Mikelenea

- EGUBAKOITZA**  
20:00 Azkenberri.com  
21:00 Draxtor  
22:00 In session  
23:50 Asteko elkarrizketak

- ZAPATUA**  
10:00 Musika klasikoa  
11:00 Asteko elkarrizketak  
23:00 Hitz eta Pitz (errep.)  
24:00 MIR (errep.)

- DOMEKA**  
11:00 Asteko elkarrizketak  
23:00 Gailurretik (errep.)



## ASTEABIHITZETAN

### Perretxiko lehiaketa Laubiden

Hamaikagarren perretxiko lehiaketa egin zen domekan Garibai etorbideko Laubide plazan. Goizeko hamaiketan hasita, eguerdiko ordu biak arte izan ziren perretxiko mota ezberdinak erakusgai.

Arizmendi ikastolako Lehen Hezkuntzako laugarren eta bosgarren mailako ikasleek gain, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailako ikasleek ere parte hartu zuten perretxiko lehiaketan. Guztira ibarreko 10 eta 15 urte bitarteko 400 bat neska-mutiko izan ziren.

### Ibai Arteko batzarra Udaletxean

Ibai Artek, Arrasateko Merkatarien Elkarteak, alde zaharra oinezkoendako ipintzearen ondorioak aztertu zituen Arrasateko udaletxean egindako batzarrean.

Ia bi urte pasatu dira erdialdea oinezkoendako egin zutenetik hona, baina neurri horrekin ez daude ados erdialdeko dendari eta bizilagun batzuk. Ez daude bat ere ados gune horretara automobiler sartu eta irteteko ipinitako arautegiarekin. Kexu guztiak batzorde batek jasoko ditu, gero Udaleko ordezkariekin berba egiteko.

### Literatura solasaldiak Monterronen

Arrasateko Udal Liburutegiak eta Emakume Sailak literatura solasaldiak antolatu dituzte azarorako eta abendurako.

Bi hilabete horietan lau liburu baino gehiago izango dira mintzagai Arrasateko liburutegian. Astelehenean, *Maitalea* liburua izan zuten aztergai, eta azaroaren 20an, *Historia de una maestra* lana aztertuko dute. Abenduan, beste liburu bi izango dituzte hizpide: abenduaren 3an, *Bihotz bi* eta abenduaren 18an, *Cartas de amor de un sexagenario voluptuoso*, hain zuzen.



### Ibai Arteren zozketaren irabazlea

Ibai Arteren 500.000 pezetan txartel irabazlea Iturriotz kaleko Aranzabal etxetresna elektrikoaren dendan banatu zen. Irabazlea arrasatearra da, Musakolakoa, hain zuzen, eta 36.999 zorbakia izan da saritua. Guk, behintzat, dirua gustura gasta dezala opa diogu. Zorionak!



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

## Turkiako kontu tristeak

**M**iseriak eta bidegabekeriak sarri gertatzen dira, eta, zoritxarrez, Euskal Herrian ez zaizkigu arrotzak egiten, baina aste honetan asko amorratu nauten gertaeren artean bi nabarmenduko nituzke. Batetik, Katalunian txakurtegi baten gertatutakoa. Indarkeria eta bidegabekeri handia dago munduan, baina oraindik,

eta zaila bada ere, gauza batzuek harritu egiten naute. Norbaitek txakurtegi sartu eta zerra batekin aurreko hankak moztu zizkion hainbat txakurri. Bestetik, Turkian jazotako azkeneko kontu beldurgarria. Turkiako gobernuak eta, bide batez, poliziak izugarritzko barrabaskeriak egin dizkie preso politikoei eta haiei elkartasuna erakusten dizkietenei.

Turkian presoekin baldintzak hobetzeko asmotan gose greba luzean daude asko eta asko, eta 72 preso hil dira grebaren zein errepresioaren erruz. Hori gutxi balitz, aste honetan, presoekin elkartasunean zeuden senide eta lagunen etxebizitzak hondeatzeko makinekin eta blindatuekin bota eta zenbait pertsona hil ditu poliziak. Hau da marka Europako Komunitatean sartu nahi duen estatu baterako! Ezetz eurak bombardatu!

## ASTEKOIRUDIA



XABIER URZELAI

### DOMU SANTU EGUNA DELA-ETA KANPOSANTUAK LOREZ ETA KANDELEZ APAINDUTA

Urtero egin izan den moduan, joan den egunean, Domu Santu eguna ospatu zen. Goizean goiz ireki zituzten kanposantuetako ateak, baina gehienek eguerdi partea aprobetxatu zuten han dauden senitartekoen hilobiak bisitatzeko. Usadio zaharra izan arren, oraindik ere jende ugari animatzen da Domu

Santu Egunean hilerrietara osteratxoa egitera. Hala ere, beste batzuek nahiago izaten dute egun batzuk lehenago joatea, senideekin bakardade eta lasaitasun osoz biltzeko. Modu batean ala bestean, Domu Santu Eguna da hildako senideei eskaintzen zaien egun bakarra.

**M**

**MEMESA**

**Industria  
hornidurak**

Tel. 943 71 24 25

**UGARAN  
jatetxea**

Garagartza auzoa  
Tel: 943 79 76 58  
ARRASATE

**ZUBIZARRETA  
LANTEGIAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 15 65



**Monte  
taberna**

Maalako arrabala, 11  
Tel.: 943 79 20 56



**INGURUMENA/** Arrasateko habitat naturalak aztergai bi biologok egiten diharduten lanean

# “Gure ondare garrantzitsuena Udalatx da, eta LHTk deuseztatu egingo luke”

IKER BARANDIARAN

**Urtzi Mendizabal arrasatearra eta Rosa Agirrebeña bergarra udalerriko landaretzaren gaineko azterketa egiten dabilta. Urtzik dioenez, urteetan Arrasaten landaretza asko galtzen dabil, eta herritarrei ezagutzera eman gura digute ondarea.**

**Zein da, zehatz-mehatz, egiten ari zareten lana?**

Arrasateko habitat naturalak aztertzen gabiltza. Udalerriaren dauden landaretza moten gaineko lana da. Landaretza mota asko dago: basoak, belardiak, zuhaixka taldeak... Mota bakoitzak ezauzgarri bereizgarri batzuk ditu, besteetatik bereizten dituen.

**Nortzuk zabilzate lana egiten? Eta noiz hasi zineten?**

Rosa Agirrebeña bergararrak eta nik neuk dihardugu lanean, biok ere biologoak. Udalak deialdia egin zuen ingurumenarekin lotutako egitasmoak aurkezteko, eta ordurako Rosa eta biok udalerriko landaretzaren inguruko egitasmoa prestatzen genbiltzan. Proiektua izango zenaren zirriborroa egiten hilabete inguru pasatu genuen; gero, Udaleko Ingurumen Sailak gure egitasmoa onartu zuen eta 2001. urteko maiatzean lanean hasi ginen basoan eta mendian.

**Hortaz, Udalak hartu du ikerkuntzaren ardura?**

Hainbat egitasmo aurkeztu zituzten, eta, horren ondorioz, Ingurumen Sailak aurrez ikusitako aurrekontua txikiegi geratu zen. Horregatik, aurrez ikusitako dirulaguntzak gutxi batzuei eman beharrean, aurrekontua guztion artean banatzea erabaki genuen. Era berean, guk hasieran aurrez ikusitako aurrekontua motz gelditu da eta orain beste finantzaketa iturri batzuk bilatzen gabiltza. Rosak eta biok lan mordoa musu-truk egin dugu, baina gus-tuko dugu ingurumena eta horren alde egitea.

**Zein da zuen lanaren helburu nagusia?**



Urtzi Mendizabalek eta Rosa Agirrebeñak udalerriko landaretzaren gainean liburua kaleratu gura dute.

Batez ere, ingurumena sustatzea, herritarrek ikustea zer-nolako ingurumen altxorak dauden Arrasaten bertan. Arlo ezezagun asko deskubritu eta herritarrei

ezagutzera ematea.

**Zuek, lana egiteko unean, hutsetik hasi zarete edo badago iraganean egindako beste lanik?**

Bai, badago lan bat, 1984koa. Leioako Unibertsitateko irakasle Jabier Loidi bergararrak Urola eta Deba ibarretako landaretzak aztertu zituen orduan. Hark egin-

dako lanaz gain, aldian-aldian landaretzari buruzko mapak batzuk argitaratu dituzte, eta guk horiek abiapuntutzat hartu ditugu.

**Zein prozedura jarraitu duzue?** Mapak eta egunkariak eskuetatik mendira jo dugu. Egunkariak landare aleak jasotzeko erabili ditugu. Landare batzuk ugariak badira, hartu egiten ditugu zer diren ziurtatzeko eta hobeto sailkatzeko. Kontuan eduki behar da ibar honetan 3.000 landare mota dagoela eta batzuetan ziurtatu behar dagoela. Horrez gain, ehun metro koadroko zonaldeetan dauden landare guztiak aztertu ditugu. Hainbat inguruetan ibil gara: gerizpetsuetan, eguzkitsetan, lehorretan, hezeetan. Basoak, zelaiak, pinudiak, guztia aztertu ditugu. Mendiko lana oso gustuko dugu.

**Eta dagoeneko ia bukatu duzue ezta?**

Bai, hala da. Udalean aurkeztu behar dugun memoria egitea bakarrik falta zaigu. Era antolatua eta ulergarri egin gura dugun denendako izan dadin. Horrekin batera, liburu bat kaleratzeko asmoa ere badugu, Udalaren eta beste babesle batzuen laguntza lortuz gero.

**Dagoeneko emaitzak badituzue... Jeneralean, zein ondorengusi atera dituzue?**

Batez ere, Arrasateko ingurumenaren egoera nahiko kaskarra dela. Hori hobetzeko, asko dago egiteko. Zoritxarrez, urteetan prezio bat gertatzen ari da, eta horrek urtez urte natura jarduera dihardu. Gainera, prozesu hori esponentziala da. Horra hor azken egunotan Epele eta Elorregi errepidea zabaltzeko erreka murgarritu izana eta ondorioz, hango haitzadia izugarri kaltetu izana. Horra hor, adibidez, Udalaren Oraindik hor dago, berau ustiatu edo esplotatzea oso zaila da, eta izugarritzko ondarea udalerrian daukagun garrantzitsuena. Baina, zoritxarrez, Lertiasun Handiko Trena egitea badute, erabat galduko da ondarea.

## “Espezie bitxiak ere aurkitu izan ditugu”

**Zein zonaldeetan ibili zarete lanean?**

Basoetan –haltzadiak, hariztiak, artadiak–, zelaietan –mendi larreak, zelai larrea, harkaitzetako larrea–. Berrehun metrotik mila metro artean ibili gara lanean. Basoko arana, ipar ipurua, elorri zuria eta beste espezie bitxi batzuk aurkitu ditugu. Kasu batzuetan harritzekoa da hemen halakoak aurkitzea, eta ezustekoak izan ditugu.

**Zein egoeran dago udalerriko landaretza?**

Egia esatearren, kaskar samar dago. Lehen,

orain pinua dagoen lekuetan haritza zegoen. Deba inguruan haltzadi handia zegoen. Baina badaude ondare garrantzitsuak: Kurtzetxikin harrobiaren gainean espezie arraroak aurkitu ditugu; Udalatxeko kareharri aldean, artadiaren gainean, espezie endemiko asko ere aurkitu ditugu, ustez, han egon behar ez zutenak. Oso altura handia duten artadi gutxi daude, eta Udalatx inguruetan zortziehun metroraingo heltzen da. Ezin ahaztu, ezta ere, Etxezarretako hariztia edo Saburdiko inguruak.

**TTUKUN**

- Fotokopiak
- Liburu josteak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias, 23 # ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62

**S. CARRASCAL S.L.**

**Guk egindakoak:**

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

**Fabrikaren erakusketa**

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a  
Tel./Faxa: 943 79 01 82

**Aretz**  
*Taberna*

Markole, 5  
943 79 20 14



**PEUGEOT**

Salmenta eta zerbitzua

**IBABE GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



**ETXEBIZITZAK AZTERGAI/** Herrian dagoen etxebizitza beharra aztertzen ari da Udala

# Herriko etxebizitza premia aztertzen ari dira

UBANE MADERA

Herrian dauden etxebizitzaren gaineko ikerketa egiten ari da Arrasateko Udala, Aztiker enpresaren eskutik. Joan den urriaren 24an hasi ziren eta bost hilabete baino lehen bukatzea espero dute. Oraingo astean, kanpo-lana egiten hasiko dira.

Udalak onartu berri duen Egita-mu Orokorren aurreneko bete-beharrak herrian dauden premiak zehaztea da. Horren harira, Udalak erabaki zuen, besteak beste, herrian dagoen etxebizitza premia jakitea komenigarria zela. Eta hori jakiteko, ikerketa egiten hasi da, Aztiker enpresaren eskutik.

Ikerketa egiteko herritarrei egin behar dizkieten galderak erabakitzen ibili dira azken bi asteotan; izan ere, joan den irailaren 24an hasi ziren lanean. Eta Aztiker-ek erabakitako galdetegiak Udalaren onespina jaso eta gero, kanpo-lana egiten hasiko dira; hain justu, oraingo astean hastea zuten aurrez ikusita. Igor Astibia lanaren koordinatzaileak adierazi digunez, kanpo-lan horretan zazpiehun bat herritarrei deituko diete telefonoz datozen egunotan. Galdetuko diete, batetik, zein den bere etxebizitzaren egoera (etxebizitzaren ezaugarrien gainean galdetuko dute kasu horretan); eta bestetik, herritar horrek edo familiako norbaitek etxebizitza beharrik duen edo ez.

## ELKARRIZKETA PERTSONALA

Behin galdetegi bukatuta, etxebizitza beharra duten familiekin elkarrizketatuko da Aztiker enpresa. Horretarako hitzordua ipini eta dagokionaren etxera joango dira, elkarrizketa pertsonala egiteko. Horrela finkatuko



Egitamu Orokorren zehaztutako lan bat da etxebizitza premiaren berri izatea.

*700 bat telefono dei  
egingo dituzte  
kanpo-lanean.  
Oraingo astean  
hasiko dira*

dituzte zeintzuk diren benetako beharrak edo premiak.

## ESKAINZA ETA ESKARIA

Horren guztiaren bitartez, helburua da, oro har, jakitea zein den Mondragoen dauden etxebizitzaren

egoera. Eta horren barruan hiru ildo zehaztuko dituzte: batetik, etxebizitzaren eskaria edo beharra; bestetik, zein den etxebizitza eskaintza; eta hirugarrenik, herrian dauden etxebizitza hutsen gaineko informazioa; batez beste zenbat etxebizitza huts dagoen jakingo dugu, adibidez.

## ZAZPI LAGUN

Aztiker enpresak zazpi langile izango ditu lan hau egiten. Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroakoak dira langileak, hain justu. Bost hilabete inguruan jarungo dute.

## LABUR

### San Josepe harrobiak 2004. urtera arte du gune hura berreskuratzeko

San Josepe harrobiak 2004. urtera arte segitu ahal izango du lanean, hau da, harrobiaren ustiatzarekin. Hortik aurrera, industriagunea eta rokodromoa eraikitze lanak egiten hasiko dira. Horrekin batera, Eibar-Gasteiz autobidea egiteko lur zati bat ere gordeko dute. Eta bien bitartean, hau da, 2001etik 2004ra, San Josepe harrobia berreskuratzeko lanak egin beharko dituzte. Hau da, landareak eta bestelakoak landatu, berriro ere mendi izan dadin. Halaxe erabaki zuen Udalak, eta orain, Gipuzkoako Foru Aldundiak behin betiko onespina eman dio egitasmo horri.

Era berean, Garagartzako Fagor enpresak duen handitze planari behin betiko baiezkota eman dio Foru Aldundiak, eta ondorioz, aurrera egingo dute Fagorrek egin gura dituen lanek: batetik, lantegia bera handitzea (14.900 m<sup>2</sup> gehiago); bestetik, Aramaiora doan errepidearekin lotzeko biribila egitea; eta hirugarrenik, aurrez ikusitako aparkaleku pribatuaren osagarri izango den aparkaleku publikoa egitea.

Bestalde, Uarkapeko atzealdean egin gura den askotariko erabilerrako eraikinari ere baiezkota eman dio Foru Aldundiak.

### LKS enpresak Arrasatetik kanpo lehenengo bulegoa zabaldu du eta ISO-9001 lortu du

LKS Abogados enpresak lehenengo bulegoa ireki du Mondragoetik kanpo. Hain justu, Bilboko Gran Vian. LKSk zuzendari Jesus Mari Martinezen esanetan, bulego berri hori lurralde hedapenaren lehen urratsa da, izan ere, 2001-2004 Plan Estrategikoaren arabera, bulego berriak irekitzeko asmoa du LKSk Donostian, Madril eta Bartzelonan.

Era berean, hedatze horrek urtero %20tik gorako hazkundea izateko aukera emango dio LKS Abogados enpresari. Aurtengo jardunaldian 200 milioi pezeta inguruko fakturazioa izango du.

Bestalde, AENOR-ek ematen duen ISO 9001 egiaztagiria lortu berri du enpresen aholkularitza juridikoan lan egiten duen abokatu etxe horrek. Hain justu, egiaztagiri hori eskuratu duen estatuko abokatu etxe bakanetakoa da.

### Gayen eta lesbianen gaineko erakusketa astebetean ikusgai Harresi aretoan

Hezkuntza da bidea izeneko erakusketa ibiltaria Mondragoera iritsi da. Martitzenean zabaldu zuten eta datorren martitzenera arte (hilak 13) izango da zabalik. Euskal Herriko Gay Askapenerako Mugimenduak (EHGAM) eta Udaleko Sexologia Zerbitzuak antolatuta dute erakusketa, eta gayen eta lesbianen inguruan izango da, hain justu. Aurten, EHGAM taldeak 25 urte beteko dituela-eta, bereziki talde horren historia izango da ikusgai: sorrera, legalizazioa, kartelak, egindako ekimenak...

Hezkuntza da bidea izena du erakusketak, heziketa du-eta helburu. Hori dela eta, batez ere eskoletara bidali dute erakusketa-aren gaineko informazioa, umeak erakusketara joan daitezten. Erakusketa Euskal Herriko beste hemezortzi herritan egon da ikusgai Arrasatera etorri aurretik.



## Parques y Jardines

**Parke eta lorategien sorkuntza.**

**Lorazaintzako mantenimendua orohar.**

**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**





## Erdialdeko peatonalizazioa dela-eta, zenbait bizilagunen eskaerak

UBANE MADERA

Alde Zaharra oinezkoendako dela-eta, erdialdeko bizilagunak sinadurak batzen hasiko dira erdialdeko etxebizitzetan bertan, eta arkitekto batek ikerketa egin dezan eskatuko diote Arrasateko Udalari.



GOITB

Martitzenean egin zuten batzarra.

Hori dela eta, Arrasateko Udalari egoera konpontzeko hiru irtenbide proposatu dizkiote.

**GILTZAK, KAMERAK ETA SINADURAK**  
Batetik, alde zaharreko etxebizitza bakoitzean oinezkoen gunea

ixten duten piboteak zabaltzeko giltza bat egon beharko litzatekeela uste dute.

Bestetik, alde zaharreko sarreak zaintzeko kamerak ipintzea proposatzen dute bizilagunek. Horrela, Udaltzaingotik bertatik zabaldu ahal izango litzateke erdialderako bidea.

Eta hirugarrenik, arkitekto batek egoera iker dezan eskatu dute bizilagunek. Hain zuzen ere, Donostian eta Oñatin oinezkoen gunea ipini zutenean, arkitekto batek egoera aztertu eta hark egindako proposamenaren arabera ezarri zuten araudia tokian tokiko udalek. Mondragoen ere gauza bera egiteko eskatuko diote Udalari.

### SINADURAK

Eta proposamen horiekin guztiekin batera, erdiguneko bizilagunak sinadurak batzen hasiko dira etxetik, gero, sinadura horiek Udalean aurkezteko.

Orain dela bi hilabete jarri zuten abian oinezkoen gunea erdialdean. Horren ondorioz, alde zaharrera ezin da ibilgailurik sartu Udalak ipinitako ordutegitik kanpo. Eta, hain zuzen ere, horrek piztu du haserrea erdiguneko zenbait bizilagunen eta merkatariren artean. Euren iritziz, eta nahiz eta oinezkoen gunearekin ados egon, oztopoak eragiten dizkie alde zaharrera sartu-irteteko Udalak ezarri duen ordutegiak: erosketak ezin dituzte atariraino eramane; edozein larrialdi gertatuz gero, ambulanziaz ezin da etxe ondoraino gerturatu...

## Sukaldeko olioak batzen hasiko dira, gero biodiesel erregaia egiteko

UBANE MADERA

Etxeko olio zaharrak batzen hasiko dira urtarrilean. Hilean behin Mondragoera etorriko den furgoneta baten bitartez batuko dute udalerriko olioak. Gero, olio horrekin automobildakodako biodiesela egingo dute.

Udaleko Ingurumen Sailak etxeko olio zaharra batzen hastea erabaki du, bestelako herri batzuetan egiten duten moduan; eta Eco-gras izeneko enpresari adjudikatu dio lan hori.

Olioak zelan batu oraindik guztiz zehaztu barik dagoen arren, seguruenik hilean behin batuko dute, egubakoitzetan. Asmoa da goizean azoka plazan batzea eta arratsaldean Hiper Eroski inguruan. Horretarako, Eco-gras enpresako furgoneta bat etorriko da eta olioak hara eramane beharko du norberak. Trukean, eskerron moduan, bi xaboi opari emango dira.

### ASPALDIKO EKIMENA

Eco-gras enpresa aspalditik dabil erabilitako olioak batzen. Orain dela zortzi bat urte hasi zen osta-

laritzako olioak batzen, baita Arrasateko jatetxe eta enpresetan ere. Gero, Eskoriatzako etxeetan olioak batzen hasi ziren, eta denborarekin herri gehiagotan hasi dira gauza bera egiten. Gaur egun, Euskal Herriko 26 bat herritako olioak batzen dute, eta enpresako arduradunek azaldutakoaren arabera, jendearen erantzuna oso ona izan da.

Orain arte, olioak Mungiako (Bizkaia) biltegi batean gorde dute; datorren urtetik aurrera, berriz, olio horrekin automobildakodako biodiesel erregaia egingo dute.

## LABUR

### Zergak ordaintzeko epea zabalik eta nortasun agiriak egiteko txandak emateko

Arrasateko zergadun guztiei jakinarazten zaie 2001eko hirugarren hiruhilabeteko ur eta zabor tasen ordainagiriak ordaintzeko epea, abenduaren 10era arte. Epe hori pasatu eta gero, ordaintzeko du barik dauden ordainagiriak %20ko gainkarguarekin kobratuko dituzte.

Bestalde, nortasun agiriak egiteko txanda-eguna azaroaren 19a izango da, 08:30etik aurrera.

### Lumagorrik, baserriko oilaskoen enpresak, Carrefour-ek ematen duen saria irabazi du

Lumagorrik, baserriko oilaskoen enpresak, enpresa txiki eta ertain onenaren saria irabazi du. Carrefour etxeak ematen duen saria hori. Zerainean dauzka Lumagorri enpresak bulego nagusia eta hiltzeak, eta Euskal Herri osoko 59 baserriarrek egiten dute lan enpresa horrendako, tartean Mondragoeko Udala auzoko Bengo baserriak. Batez beste, baserri horretan mila oilasko hazten dituzte urtean. Lumagorri enpresak Eusko Labelarekin egiten du lan.

### Bizkaia etorbideetik Gorostizako etxeetara igotzeko Kalealdetik joan beharko da

Monterron-Erguin Oinezkoen Zumardia egiteko lanak direla eta Bizkaia etorbidea eta Oinezkoen Zumardia lotzen dituzten eskalerrak itxi egingo dituzte hilaren 7tik aurrera, eta lanek eragingo duten arriskua bukatu bitartean egongo dira itxita. Hala, Bizkaia etorbideetik Gorostizako etxeetara igotzeko Kalealdetik joan beharko da.



### Mastin txakurra desagertuta

Joan den urriaren 24an, Azkar izeneko mastin txakurra galdu zen. Untzilla inguruan desagertu zen. 53 kilo pisatzen du, gutxi gorabehera, eta gris eta zuri kolorekoa da. Urtebete eta bederatzi hilabete ditu.

Txakurraren gaineko informazioaren bat izanez gero, deitu honako telefonora: 676674575



# LASAGABASTER





## MARITXUTAN BAKARRIK EZ, EGUNERO!

**M**aritxu Kajoi aspaldi pasatu da, baina Larraitzen lehengusinek gomendioa egin gura diote Larraitzi berari. Urtean behin bakarrik izaten da Maritxu, eta Larraitzen lehengusinen ustez, egunero jantzi beharko litzateke Larraitz horren dotore. Gu ere konforme gaude.



## DENBORALDI ONAREN ORDAINA

**F**agor-Dorletako Ama txirrindulari taldeak denboraldi luzea izan du, eta txirrindulari gazteek emaitza onak lortu dituztenez, Javier Lazkano

presidentek agindutakoa bete zuen: denboraldi amaieran Port Aventura joatea, hain zuzen. Ez da ordain-sari makala ez!



## MUS TXAPELKETA.

**M**ontserrat tabernan mus txapelketa izango da gaur gauean. Argazkikoa Juan Carlos Gonzalez da, eta irabazleek eskuratuko duten sariak erakusten ditu. Edari eta trofeoek gain, irabazleek 120.000 pezeta irabaziko dituzte. Bigarren, hirugarren eta laugarren geratuko direnak ere sari potoloak izango dituzte, beraz animatu parte hartzera. Izen emateko epea hamar eta erdietan amaituko da.



## NON DAGO... BERONIKA?

**A**rgazkian aurpegi ezagun asko azaltzen badira ere, egun horretako protagonista ez dugu inondik inora ikusten,

ala bai? Beronikak, hainbat urtean EHko liberatu gisa lan egin ondoren, lanez aldatzea erabaki du. Hemendik gutxira

Arrasateko Uarkape pilotalekuan ikusiko dugu lanean. Lankideen eta lagunen partetik, eskerrik asko eta zorte on!

## CORSA BERRIA

SRI



**Zure burua  
auto honetan  
ikusiko gura zenuke.**

**TAKOLO AUTOAK**

Araba etorbidea • 943 77 30 10 • ARRASATE



## ELKARRIZKETA

ISIDOR UGARTE/KARATEKA

**“Karateka ona izateko ez dago zertan lehiakide ona izan beharrik”**

XABIER URZELAI

Isidor Ugarte Euskadiko karate txapelduna izan da maila guztietan, eta orain, Euskal Selektzioarekin dabil buru-belarri. Joan den asteburuan, Oviedon izan zen, eta hainbat kolperekin etorri bada ere, oso gustura dago.

**Principe de Asturias txapelketa jokatu berri duzu Oviedon Euskal Selektzioarekin. Pozik hantxe lortutako emaitzarekin?**

Bai, oso gustura etorri naiz taldeka eta bakarka egin dugun lanarekin. Taldeka hirugarren geratu gara, Madrilen eta Asturiasen atzetik, eta bakarka bosgarren izan naiz, hortaz, pozik nago han egindakoarekin.

**Madrilgo eta Asturiasko selektzioak maila altuagoan daude?**

Baietz esango nuke. Txapelketa gehienetan bi selektzio hauek goiko postuetan izaten dira, eta, azken baten, nahiko logikoa da. Selektzio bi hauek besteok baino aurreratuago daude prestakuntza eta material aldetik, eta baliabide gehiago dituzte. Hori guztia txapelketetan nabaritu egiten da, eta, horrela, mailak ere gora egiten du.

**Euskadin txapeldun izan zara hainbat mailatan, maila altua dago?**


Espainiako txapelketetara joaten garenean lan txukuna egiten dugu, eta aurreko postuetan izaten garenez maila altua dagoela esango nuke. Europara salto egitea zailagoa izaten da, eta horra iritsiz gero, argi dago maila bikaina dela.

**Zein izango da parte hartuko duzuen hurrengo txapelketa?**

Denboraldia urtarrilean hasiko da, eta oraindik puntuan jartzeko hainbat txapelketatan izango gara. Besteak beste, Zaragozara eta Tenerifera joango gara lehiaztera, azken baten, txapelketa horiek denboraldia prestatzeko lagungarriak dira-eta.

**Karatea egiteko zer-nolako baliabideak dituzue Euskal Herrian?**

Egia esateko, nahiko baliabide eskasak ditugu hemen. Adibidez, joan den asteburuan Oviedora gure autoekin joan ginen, eta beste selektzio asko autobusean joan ziren. Horrez gain, materiala guk erosten dugu, eta beste selektzioetan federazioak ematen die behar duten materiala. Orain, gauza horiek eskuratzeko borrokan ari gara; gainera, gure atzetik datorren jendearendako izango da. Guk uste dugu gauza horientatik borrokatzea garrantzitsua dela Euskal Selektzioak aurrera egin dezan.



XABIER URZELAI

*“Beste batzuk guk baino baliabide gehiago dituzte, eta arlo horretan hobetu beharko genuke”*

rekin. Azken batean, entrenamenduetan prestatutako ariketak ondoen egiten dituenak irabazten du txapelketa.

**Gaur egun, zer behar da karateka ona izateko?**

Esparru guztietan moduan, gauza bat ondo egiteko ilusioa eta daukazun guztia ematea da garrantzitsua. Karateka ona izateko ez daukazu zertan lehiakide ona izan beharrik. Hau da, karateka ona izateko ez daukazu zertan txapelketarik irabazi, ezta gutxiago ere.

Lehiatzerako orduan gorputzaldi onean egotea beharrezkoa da, baina ez da garrantzitsua. Txapelketetan, entrenamenduetan prestatutakoa praktikan jartzen jakin behar da, eta hori ez da erraza aurrean beste pertsona bat dagoelako helburu bera-

*“Txapelketetan aurretik prestatutakoa praktikan jartzen jakin behar da”*

**Zer gomendatuko zenioke karatea egin gura duen gazte bati?**

Kontua da borroka-arteak nahiko kirol bereziak direla, eta hasiera batetik argi izan behar da ez direla futbola edo saskibaloia moduko kirolak. Jendeak askotan ez ditu ulertzen horrelako kirolak, eta behin baino gehiagotan burla ere egiten dute askok. Hala ere, aurrera egin dezala esango nioke neska-mutikoari. Gogo handiz has dadila, eta ilusioz, oso garrantzitsua da hori. Bi gauza horiek nahiko dira edozer egiten hasteko.

ERRUGBIA

**Arrasateko taldeak bihar jokatu du Gasteizko Gaztedi taldearen kontra**

Arrasate Errugbi Taldeak bihar jokatu du Gasteizen Gaztedi taldearen kontra. Partidua arratsaldeko lauretan hasiko da, eta aspaldiko ohiturari jarraituz, etxeko taldeko jokalariek Mari-txu Kajoiko traje dotoreekin joango dira Gasteizera. Norgehiagoka amaitzean, hirugarren zatia izango da, hau da, parrandaxoa. Etxeko taldeak joan den asteburuan jokatuako partiduan ezin izan zuen irabazi, 15 eta 17 galdu zuen-eta Zarautzen kontra. Zale guztiak gonbidatuta zaudete bihar Gasteizera joan eta taldea zelai barruan eta kanpoan animatzera.

FUTBOLA

**Mondrak eman dezakeen guztia erakutsi zuen egunean, Oriokori 5-1 irabazita**

Mondra futbol taldeak beste erakustaldi bat egin zuen joan den egunean Atxabalpeko zelaian, eta Raulen mutilek argi eta garbi erakutsi zuten hasierako bolada txarra ahaztuta dagoela.

Hasiera-hasieratik etxeko jokalariek nagusitasuna erakutsi zuten, eta Orioko mutilek ezin izan zuten etxekoen joko erasokorra geratu. Etxeko taldeak bost gol egin zituen, eta kanpotarrek bakarra egin zuten, partidua amaitzear zegoela.

Mondra taldea sailkapenean hamaikagarren dago, zazpi punturekin, eta datorren asteburuan, Zumaia taldearen aurka jokatu beharko dute kanpoan.

SASKIBALOIA

**Kenci Arrasate saskibaloia taldeak hilabete darama partidurik galdu barik**

Arrasateko saskibaloia taldeak 86 eta 79 irabazi zion Tolosari zapatu arratsaldean. Iker Zubiriaren mutilek lan handia egin behar izan zuten puntuak etxean geratzeko, eta azkenean garaipen garrantzitsua eskuratu zuten, horrela, etxeko taldeak irabaziz amaitu du lehen itzulia. Taldeko gazte guztiak lan polita egin bazuten ere, Gorostidi eta Ziarsolo bikain ibili ziren, 22na puntu eskuratu zituzten.

Oraingo asteburuan, etxeko taldeak berriro ere Iturripen jokatu du. Arerioa sailkapenean lehenengo postuan dagoen Siglo XXI taldea izango da.

ATLETISMOA

**Berrehun arrasatear izango dira Behobia-Donostian 20 kilometroak korritzeko gertu**

Behobia-Donostia lasterketan izena emateko epea azaroaren 3an itxi zen, eta dagoeneko baditugu Arrasateko datuak. Aurretik ere, kirolari dezente izango da Behobia eta Donostia banatzen dituzten hogeit hamar kilometroko egiteko gertu. Arrasaten, Loramen di Kirolak dendan 150 lasterkarik eman dute izena, eta Forum Sportland dendan beste 50ek. Joan den urtean arrasatear azkarrena Jabier Mentxaka izan zen, 01:10:23ko denborarekin.

Hortaz, berrehun arrasatear izango ditugu maratoni erdian, eta Debagoienetik lauhun kirolari inguru izango dira Behobia-Donostia lasterketan datorren domekan.

KIROL GIDA

**Mondragon Unibertsitateko Osasun eta Kirol Sailak gida berria kaleratu du**

2001-2002 ikasturterako kirol gida dagoeneko egina dago, eta bertan erabateko eskaintza azaltzen da, hainbat arlotan.

Prestakuntzan eskalada, mendiko eskia, masajea, yoga, behar piraguismoa, tenisa, parapentea eta itsaspekaritza lantzen dira. Besteak beste, izadiak gozatzen ikasteko aukera ere eskaintzen da: mendiko bizikleta, eskia, erreka lasterren jaitziera, zubi-jaitziera, piraguismoa, arroila jaitziera, eta abar.

Horrez gain, sasoi onean egoteko kirolak, tresneria alokatzea, kirol zerbitzuak, informazio zerbitzuak eta osasun azterketarako informazioa dakartza gidak. Joan den ikasturtean, 1.800 ikaslekin hartu zuten Osasun eta Kirol egitasmoan.





Honetan ere MAPFRE bereiztu egiten da  
gainerako aseguru enpresetatik:

## HERIOTZA ETA LAGUNTZA ASEGURUA



**MAPFRE**

Garibai Etorbidea, 16 • Tel.: 943 79 89 00 / 943 79 67 22  
Arrasate Pasealekua, 37 • Tel.: 943 79 71 31 / 943 77 03 04



ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

Txotx - Lasagabaster	4-7
Goma2 - Makanaki	7-2
Estu ta Larri - Iriztu tab.	4-4
Fragel Gol - Usotz Potroak	3-4
Bazar Toki On - Bikain Akad	2-9
Saukelu scream - Chap Dribling	1-4
Aurrera Bolie - Rayo Aldeano	6-6

B MULTZOA

Irati STS - EGD	12-6
IKP - AKTA	2-3
DDK - Etxina!	7-4
AT Celaya - Azkena YK	2-3
Komando Alpargat-Full Duplex	6-2
Bin Laden-Abocajarro	8-3
Etxerat - KJ Basati	5-2

PARTIDUAK

AZAROAK 10, ZAPATUA. EPAILEAK

- 08:50: Fragel Gol-Chapime Dribling. Goma2
- 10:00: Goma 2-Usotz Potroak. Fragel Gol
- 11:00: Saukelu S-Aurrera Bolie. Usotz P.
- 12:00: Osama B.L-KJ Basati. Aurrera Bolie
- 13:00: AC Surcos-Etxerat. Osama Bin Lad.
- 14:00: Estu Ta Larri-Bikain akad. Etxerat
- 15:00: IKP-Azkena You Know. Bikain akad
- 16:00: AT Celaya-Abocajarro. Azkena YK
- 17:00: D.D.K-Full Duplex. AT Celaya
- 18:00: Etxina!-E.G.D. D.D.K

AZAROAK 11, DOMEKA

- 09:50: Makanaki-Maldifa's. Rayo Aldeano
- 11:00: Rayo Ald-Bazar Toki On. Makanaki
- 12:00: Irati STS-AKTA. Bazar Toki On
- 13:00: Betrayer-Lasagabaster AKTA

Atsedena: Komando Alpargat

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. Goma2	4	2
2. Bikain akad	4	2
3. Chapime Driblin	3	2
4. Iriztu taberna	3	2
5. Usotz Potroak	3	2
6. Estu Ta Larri	3	2
7. Lasagabaster	2	2
8. Betrayer	2	1
9. Makanaki	2	2
10. Aurrera Bolie	1	2
11. Rayo Aldeano	1	2
12. Saukelu Scream	1	2
13. Txotx	0	2
14. Fragel Gol	0	2
15. Maldifa's	0	1
16. Bazar Toki On	0	2

B MULTZOA

	P	J
1. DDK	4	2
2. Etxerat	4	2
3. Komando Alpargat	4	2
4. Azkena You Know	4	2
5. Irati STS	2	1
6. Bin Laden	2	2
7. AC Surcos	2	1
8. AT Celaya	2	2
9. AKTA	2	2
10. Etxina!	0	2
11. EGD	0	2
12. Full Duplex	0	2
13. Abocajarro	0	2
14. IKP	0	1
15. Koka Junior Basati	0	1

# Santamas txapelketako lehenengo partiduak jokatu ziren martitzenean


XABIER URZELAI

Arrasateko pilotariek Gipuzkoako Txapelketa jokatzeko jarraitzen dute, baina dagoeneko eskuz banakako Santamas Txapelketan dabilta buru-belarri. Lehenengo partiduak martitzenean jokatu ziren, eta Zuazubiskarrek eta Zugastik lortu zituzten lehen puntuak.

Martitzen arratsaldean, eskuz banakako Santamas Txapelketa lehen partiduak jokatu ziren, eta senior mailako bi partidu izan ziren ikusgai. Lehenengo partiduan Osinaga eta Zuazubiskar aritu ziren nor baino nor, eta partidu gogorra izan zen.

Hasiera baten, Osinagak aurre hartu zuen, baina Zuazubiskarrek ez zuen behera egin. Azken honek indar handiz jotzen zion pilotari, eta Osinagak boleaz erantzun behar izaten zion. Hamabosgarren tantoan lortu zuen Zuazubiskarrek partidua berdintzea, eta Osinagak azken tantoetan ezin izan zuen ezer egin. 18 eta 15 izan zen emaitza, Zuazubiskarren alde.

Ondoren, Zugastik eta Lazkanok jokatu zuten, eta partidu horretan ere bi pilotariek gogo-



XABIER URZELAI

Zugasti eta Lazkano beroketa-ariketak egiten partidua jokatu baino lehen.

tik izerditu zuten. Hasierako hiru tantoak Lazkanorendako izan ziren, baina Zugastik sakea berreskuratu zuenean zazpi tanto egin zituen segidan. Hurrengo tantoetan Zugastik aldea hartu zuen, baina Lazkanok ez zuen partidua galdutzat eman. Partiduko tantorik politena Zugastik egin zuen: Lazkanoren dejada batera iritsi eta zabalera beste dejada batekin erantzun zuen.

Lazkanok partiduari eutsi gura izan zion, baina azkenean, Zugastik 18 eta 11 irabazi zion. Hurrengo partiduak datorren martitzenean jokatu dira, arratsaldeko zazpietatik aurrera. Zugastik Errastiren kontra neurtuko ditu indarrak, eta Zuazubiskarrek Lazkano izango du aurrez aurre. Bestalde, gazte mailako pilotariek eguaztenen arratsaldean jokatu dute.



Ane Garcia da Ibai-Artek zozketatu dituen 500.000 pezetan jabea. Zorionak, Ane!

Arrasateko herriari eta, bereziki, parte hartu duzuen guztioi,



ESKERRIK ASKO  
IBAI-ARTEREN PARTETIK





X-TRAIL BERRIA

-TREME LIFE

- ☒ ALL MODE 4X4 TRAKZIO SISTEMA ELEKTRONIKOA
- ☒ 4 AIRBAG
- ☒ ABS.EBD (BALAZTATZEAREN BANAKETA ELEKTRONIKOA)
- ☒ NISSAN BRAKE ASSIST.
- ☒ EPS+ (EGONKORTASUNAREN KONTROL ELEKTRONIKOA).
- ☒ 4 DISKOZKO BALAZTA.
- ☒ XXL EGUZKI-SABAI PANORAMIKOA.
- ☒ MALETATEGIA HANDIA DA ETA GARBI DATERA BI MOTOR MODERNO.
- ☒ 2.2L COMMON.RAIL T-DIESEL INTERCOOLER 6 MARTXAKOA.
- ☒ 2.0L 16V., GASOLINA (MARTXAK ALDATZEKO ESKUZ EDO AUTOMATIKOKI)

3.923.000 pta.tik  
aurrera\*

SEE THE CHANGE

5 URTEKO  
BERMEA

KM. MUGA BARIK



**ALDIBI AUTOAK, S.A.**

Zigarrola Kalea, 1 - Tel. 943 71 20 02 - 20500 Arrasate



## GAZTE KONTUAK/ASTEBURURAKO PROPOSAMENA GAZTETXEAN

# Kultura eta errebindikazio eskaintza zabala asteburuan gaztetxean

IKER BARANDIARAN


**G**aztetxea hizpide da aste honetan. Hain zuzen ere, gazteen ahaleginari esker, gaurtik aurrera eta domeka arte, biak barne, zenbait ekitaldi egingo dira gaztetxean, eta irteera bat ere antolatu dute Gazte Asanbleakoek.

Gaztetxeakoak fin dabilta azkenaldian; hala dirudi, behintzat, asteburu honetarako prestatu duten guztiaren berri jaso eta gero. Asteburuari hasiera emateko, gaur bertan, iluntzean, kontzertu berezia ikusgai eta entzungai egongo da Ospitale Zaharreko eraikinean, *Ekintza Zuzena* aldizkariaren eskutik. MCD talde bilbotarrak azken diskoa aurkeztuko du gure artean, *Imbecil.com* izena daukana. Baina ez dira bakarrik egongo. Eurekin batera, eta gaueko 21:30etik aurrera, Banda Munizipala punk taldea ere arituko da.

Hurrengo egunean, Euskal Herriko Gaztetxe eta Gazte Asanbleak Bilbon antolatu duten manifestaziorako autobusa antolatu dute gaztetxeok. Garibaitik irtengo da bazkalostean, eta merke-merke jarri dute guztien eskuragai egon dadin, 300 pezetan, hain zuzen ere.

Gazte asanbleakoek jakinarazia digutenez, aspaldian gaztetxeak jasaten ari diren kriminalizazio kanpainari aurka egiteko antolatu dute arratsaldeko 17:30ean Bilboko La Casillatik irtengo den kale agerraldia. Horrez gainera, iluntzean kontzertua egingo dute Errekaldeko Kukutza gaztetxean.

Oraindik gogoia izanez gero, eta modu lasaiagoan, domekan, arratsaldeko 18:30ean, antzezlana bat ikusgai egongo da gaztetxean bertan, doan. Zumarragako Juanlu Escudorok *Rie! Soy un calavera* lana antzeztuko du.



ARTXIBOA

## KULTURAPILULAK

## Lesbianei eta gayei buruzko erakusketa Harresi aretoan

*Hezkuntza da bidea* izenpean, gayen eta lesbianen inguruko erakusketa antolatu du Udal Sexologia Zerbitzuak Gipuzkoako EHGAMen laguntzarekin. Hilaren 5etik 13 arte izango da ikusgai Harresin.

## Irudi eta ilustrazioei buruzko erakusketa bitxia Monterronen

Galtzagorri elkarteak *Euskal Irudigileen Aretoa* izeneko erakusketa antolatu du Monterronen. Dagoeneko zabalik dago eta, bestalde, azaroaren 13an eta 15ean ikastetxeetatik bisitaldiak egingo dituzte.

## 'Sexo, drogas y R&R' antzezlana ikusgai lamain

Iamai kafetegiak ez dio ikuskizunak antolatzeari utzi gura, eta trilogia bat eskainiko digute. Marc Rea artistak *Sexo, drogas y R&R* antzezlana egingo du gaur eta datozen bi egubakoitzetan.



**Lagun Aro Bizitza eta Istripu aseguru bat kontratatzen duzunean, berez pertsonen arduratzen diren pertsonak kontratatzen ari zara**

**Lagun Aro Aseguruetan Bizitza eta Istripu Aseguru osatu, azkar eta baliagarri bat aurkituko duzu.** Baina batez ere pertsonak aurkituko dituzu. Zure arazoak entzun, ulertu eta konpontzen lagunduko dizuten pertsonak. Hasieratik ohartuko zara onena ematearren lan egiten dugula. Zure neurrira egindako aseguru bat diseinatuko dizugulako.

Kontuan izanik zure etxea, zure egoera eta zure premiak. Eta benetako orduan, hortxe egongo gara zugandik are eta hurbilago. Behar duzun erantzuna emanez. Uste dugulako aseguruetan gauzak modu batean bakarrik egin daitezkeela, ongi eginez.

Grupo Caja Laboral  
Euskadiko Kutxa Taldekoa

Etxea • Istripuak • Bizitza • Automobila • Aurrezkia

  
**SEGUROS LAGUN ARO  
ASEGURUAK**

Erantzuten duen aseguruia

Iturriotz, 27. 1a • ARRASATE • Tel.: 943 79 20 77. Faxe: 943 79 75 88



ELKARRIZKETA

MARIA DAPENA ETA JOKIN CARRILLO/GAZTEEN EKIMENAK XII. ARGAZKI LEHIAKETAKO ARRASATEKO IRABAZLEAK

# “Argazki lehiaketa baten parte hartzen dudan lehenengo aldia da; oso pozik nago”

IKER BARANDIARAN

**J**okin Carrillo (13 urte) eta Maria Dapena (23 urte) arrasatearrak izan dira aurtengo Gazteen Ekimenak XII. Argazki Lehiaketako irabazleak. Hori aprobetxatuz, eurekin berba egin genuen.

**Noiz piztu zitzaizun argazki zaletasuna? Noiz hasi zinen argazkiak ateratzen?**

**Maria Dapena:** Argazkiak ateratzea beti atsegin izan dut. Lehen, Canon kamera neukan, gero Arte Ederrak ikasten nenebilela, reflex kamera erabiltzen nuen; baina nire lehenengo kamera ona aurten, abuztuan, erosi dut. Kamera horrekin atera ditudan lehenengo argazkiak lehiaketa-koak izan dira.

**Jokin Carrillo:** Duela urtebete inguru hasi nintzen. Etxean genuen kamera bat hartu eta, jakin-minez, paisaiei, lagunei eta abarri argazkiak ateratzen hasi nintzen. Gustuko nuela konturatu eta horretan dihardut.

**Lehiaketa askotan parte hartu duzu?**

**M.D.:** Hau izan da lehenengoa, benetan, eta izugarri poztu nau jaso dudan sariak. Sari handiagoak zeuden arren, Emakume Sailaren saria oso berezia da niretako, nik beti emakumearekin lotutako gaiak lantzen ditut-eta, unibertsitatean “emakume artea” egiten nuela esaten zidaten.

**J.C.:** Lehenengo lehiaketa izan da niretako. Ikastolako maisu batek aurkeztera animatu ninduen, eta lehiatu den klaseko bakarra izan naiz.

**Zein da zure helburua lehiaketan parte hartzerakoan, saria irabaztea edo beste zer-bait?**

**M.D.:** Artean hanka bat sartzea eta, bide batez, nire lana zelan baloratzen den jakitea. Pozgarria litzateke norberaren lanak Monterrongo erakusketa aretoan



IKER BARANDIARAN

*“Emakume Sailaren saria oso berezia da niretako, nik beti emakumeen gaiak lantzen ditut-eta”*

eskegita ikustea.

**J.C.:** Batez ere, nire argazkiak onak ziren edo ez jakitea, eta, horrez gain, esperientzia pixka bat hartzea.

**Zein argazki mota aurkez-**

*“Ikastolako maisu batek aurkeztera animatu ninduen, eta lehiatzen jarraituko dut”*

**tu duzu lehiaketara?**

**M.D.:** Bi argazki; bata, lagun baten aurpegia kristal batekin bat eginda, aurpegia zatituta egongo balitz bezala; eta bestea, horma baten adreiluak emakume

*“Muntaiak egiten ditut, egoera eta pertsonaiak aurrez sortu edo eraldatzen ditut erretratatze”*

baten aurpegiarekin nahastuta. Gero, ikatz argazki dendan digitalizazio lana egin zidaten, nik ez daukat-eta horrelako tresneriarik. Lan ona egin zidaten, baita beti laguntzen didan Joanak ere.

Haren laguntza barik ez nuen sari hau jasoko ezta egiten ditudan lanen erdia egingo ere.

**J.C.:** Hiru argazki aurkeztu nituen, zuri-beltzean, Gautxoriak lelopean: bata, esku bat porro bati eusten; beste bat, kalimotxo katxi batekin; eta azkena, leiho batetik taberna bat ontzi eta zaborez beteta jai handi baten ondoren, Maritxu Kajoiko biharamu-nean.. Maisuak eman zidan gaiaren ideia, eta nik jorratu egin dut.

**Zer-nolako argazkiak ateratzen dituzu jeneralean?**

**M.D.:** Zuri-beltzeko argazkiak edo sepia kolorekoak atsegin ditut gehien, batzuen ustez zaharkitu antza duten arren. Lehen planoak lantzea ere gustatzen zait, baita esperimentazioak egitea ere. Muntaiak egiten ditut, egoera eta pertsonaia bereziak aurrez sortu edo eraldatzen ditut. Beti dago aurrelana.

**J.C.:** Gurago izaten dut argazkiak zuri-beltzean ateratzea. Polita goak irteten dira. Jeneralean, zuri-beltzeko argazki-filmak erosten ditut, eta batzuetan ikastolan errebelatzen ditut.

**Zer gustatzen zaizu erretratatzea?**

**M.D.:** Nik jendea erretratatzea dut gustukoan, betiere jendea mozarrotuta edo makilatuta badago. Oso espresio bereziekin, ezin da ohiko argazki normala izan. Berezitasunak izan behar ditu.

**J.C.:** Oporretan, paisaiak erretratatuta ditut. Lagunei edo jendeari argazkiak ateratzeko orduan, gurago dut txorakeriak egiten.

**Argazki lehiaketa honetan saria eskuratzek zer eman dizu, sariaz gain?**

**M.D.:** Saria jaso izanak neure balioa frogatzen lagundu dit. Nolabaiteko maila dudala erakutsi dit.


**J.C.:** Sariak beste lehiaketa batzuetara aurkezteko animua eman dit, eta jasotako diruarekin kamera hobea erosiko dut.

## ASESORIA ARRASATE

- Juridikoa
- Lan arloa
- Fiskala
- Bankinter finantza agentea

Erdiko kale, 32 1j | • ARRASATE  
Tel.: 943 79 01 47 Faxa: 943 79 73 00

# PUB HAIZEA



# HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99



BEHEKODENDATIK

# Yajaira Ozoria Santo

LOS VAQUEROS DENDAKUE

XABIER URZELAI

Yajairak 20 urte dauko, eta oin dala sei urte etorri zan Mondragoera. Santodomingoar honek bi urte egingo ditu laster Los Vaqueros erropa dendan, eta oso gustora dabil.

**Amets bat.**

New Yorkera bi ajie egittie.

**Amets txar bat.**

Hillik bizi dienak, zombixek... bilddur haundixe emuten dustie.

**Egin dozun azken bi ajie.**

Juen dan urtien Santo Domingora juen nitzen.

**Txartel horixe, zeñei?**

Neure izen antzerakue daukon pertsona bati.

**Eta gorrixe?**

Gorrixe be harei.

**Pelikula bat? Liburu bat?**

**Disko bat?**

La vida es bella / Ez naz akordetan izenakin / Camela.

**Drogak legalizauko zittukie?**

Ez.

**Eta prostituziñue?**

Iguel bai.

**Tabernetako txikiteue ala diskotekak?**

Diskotekak, duda barik.

**Ze gustetan jatzu Mondragoetik?**

Gauza asko, baiñe, batez be, jentie bera.

**Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?**

Gaztiei erakutsiko neuskie errespeto haundixagoe eukitten.

**Eta lehendakari izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?**

Ahalegindduko nitzake lege batzuk aldaketan. Gaur egunien, edade txikikuek gauza txar asko egitten dittue, eta adin txikikuek dienez ez da ezer be pasetan. Bortxaketetan, adibidez.

**Ze gehitu leikixo ARRASATE PRESSEi? Eta ze kendu leikixo?**

Ez dotenez entendiduten, itzulpenen bat egotia gustauko litxakit, txiki-txikixe bada be. Ez neuke ezer be kenduko

**Ezagutu dozun pertsona interesante bat.**



*“Interesantie izeteko, gauza politte esatiekin ez da nahikue. Egunero erakutsi biher da”*

Interesantie izeteko, gauza politte esatiekin ez da nahikue. Egunerokuen erakutsi biher da, eta bateron bat ezagutu dot.

**Bizitzera hiri batera juetokotan, nora?**

Londresera juengo nitzake gustora.

**Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?**

Gustora egongo nitzakeen bateron batekin.

**Telebisiñoko programa bat? Eta irratikue?**

Telenobelak. Ez dot irratirik entzuten.

**Dendari izengo ez bazitze, ze izengo zitzake?**

Enfermerie.

*“Erropatan gastauko neuke dirua gustora. Etxien hogeita hamar fraka eukiko dittu.”*

**Egunen baten bakeruek modaz kanpo egongo die?**

Ezetz espero daigun, lan barik geratuko gare-eta.

**Zuk zenbat fraka dauketzu etxien?**

Uf! Hogeita hamar baiño gehixago bai, behintzet. Baiñe klase diferentekuek die.

**Zenbat balixo daue dendako bakeru garestixenek?**

Hamaika mille pezeta.

**Eta merkienek?**

Lau mille pezeta.

**Zein da zuri gehixen gustetan jatzun markie?**

Diseño aldetik Levi's-ak asko gustetan jat. Eta Peabody 308 markie be asko gustetan jat.

## NIREBIDAIAHURA/ Chen Jian eta Chen Ding

Txinara / 2001eko uztailen

**A**naia bi hauek Arrasaten bizi dira, baina argi dago euren sustraiak beste nonbait daudela. Aurtun, bigarren aldiz Txinara joateko aukera izan dute, eta han ikusitakoa asko gustatu zaie.

Chen Jian-ek zortzi urte ditu eta Chen Ding-ek sei. Lehena Madrilan jaio zen, eta bigarrena arrasatearra da jaiotzez. Uztailen, Txinara joan ziren anaia bi hauek.

Bidaia Wei Pin Yin osabarekin eta Shui Xing Ying aitona-ekin egin zuten, eta hiru hila-betez izan ziren Txinan. Bidaia euren herrira joateko aprobe-txatu dute, Wen Gi-ra, hain zuzen ere, eta han familiakideekin izan dira. Wen Gi herria asko gustatu zaie anaia bi hauei, eta hango familiarekin egotea asko eskertu dute.

Txinara oporretan joan badira ere, han ez dute astirik izan gora begira egoteko. Beste gauza batzuen artean, txinera idazten ikasteko aprobe-txatu dute, eta dagoeneko gazte bi hauek hiru hizkuntza dakizkite: euskara, gaztelania eta txinera, hain justu ere.

Chen Jiang eta Chen Ding-en gurasoek ezin izan zuten oporretan eurekin joan. La Gran Muralla jatetxean egiten dute lan, eta hemen geratu behar izan ziren. Chen Jiang-ek argi dauka Txinatik zer gustatu zitzaion gehien: “Hemen mendi asko dago, baina Txinakoak ere asko gustatu zaizkit, benetan politik dira Txinako mendiak”. Horrez gain, San Viatorren ikasten duten anaia bi hauei ez zaie gustatzen hemengo janaria. “Hasieran, ikastolan jaten genuen, baina gurago dugu etxeko janaria, eta orain, etxean bazkaltzen dugu”. Anaia handienari asko gustatzen zaio marraztea. Batez ere, dragoiak marrazten ditu. Arrasaten ere bada dragoirik, baina Chen Jian-ek, aukeran, gurago ditu Txinako dragoiak.



*“Txinako mendiak gustatu zaizkit, oso politik dira”*

*“Hemengo janaria ez zait gustatzen, gurago dut etxekoa”*

XABIER URZELAI



Chen Jian eta Chen Ding anaiak Txinan beraien arrebarekin.



**ALDEDI**  
MARKO-JARTZEAK

Biteri, 8 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84



**ARRASATE**  
**HOTELA**

Biteri, 1  
Tel.: 943 79 14 16  
ARRASATE



Udazkeneko hegoaxe epelak mendi magaleko pagohostoek haratago erueten dittuen lez, bizitzaren gogortasunak aldendu hau guandik, baina jakin, hire izakera zein bizitzeko era, gure bihotzeko txokorik goxoenean gorderik izango ditteule. Beti izango haugurekin. Aupa ZURU!!

Hire kuadrilakuek.



ZAHARREN ETXETIK



IKER BARANDIARAN

Artxiboko irudian, Monterrongo hitzaldi aretoan alzheimerri buruz egindako jardunaldietako bat.

# AFAGI elkarteak egoitza propioa estreinatu du egunotan Arrasaten

IKER BARANDIARAN

**A**FAGIk, Gipuzkoako Alzheimerdunen Senitartekoen Elkarteak, egoitza propioa eskuratu du azkenean. Izan ere, elkarteak ibarrean alzheimerri duten gaixoen senitartekoei laguntza ematen dihardu azken urteetan, eta gaixotasun larri hori ugalduz joan den neurrian, egoitza propio baten premia areagotu egin da. Duela hilabete batzuk, AFAGIk Udalarari eskaera egin zion, eta urriaren bukaeran Udalak egoitza utzi dio.

AFAGIk ibarrean daukan ordezkariak, Edurne Etxabek, azaldu digunez, "orain arte gaixoen senideekin hitzorduak kafe-tegi eta etxeetan egin behar izan ditugu, eta aproposena gune propioa edukitzea da, senideendako oso une gogorak izaten dira-eta. Egoitza edukitzeak erraztu egingo du senideak gugana laguntza bila gerturatzea".

AFAGIren egoitza Arrasate pasealekuan kokatuta dago, iraganen Arrasate Irratia zegoen

gune berean, hain justu. Hala ere, interesatuek ezin izango dute zuzenean hara jo. Aurrez, hitzordua egin beharko dute 655 711837 telefonora deituta.

AFAGIk edonori informazioa eta babesa ematen dio, batez ere alzheimer gaixotasuna dutenei, baina badago aukera elkarteko

## Informazioa eta babesa eman

**Gipuzkoako Alzheimerdunen Senitartekoen Elkarteak hamaika urte beteko ditu laster. Duela lauzpabost urtetik hona, berriz, ibarrean elkarri laguntzeko taldeak eratzen hasi ziren, baita hitzaldi zein jardunaldiak antolatzen ere, eta horretan buru-belarri dabilta, batez ere Edurne Etxabe, hura da eta arduraduna.**

bazkide egiteko. Edurnek azaldukoaren arabera, urtean 6.000 pezeta besterik ez da ordaindu behar, eta gero eta bazkide gehiago lortzeak dakarren babes ekonomikoaz gain, erakundeen aurrean indar handiagoa eman go luke. Bazkideek, esaterako, elkarri laguntzeko taldeetan parte hartzeko aukera izaten dute, eta gaixotasun larri honen kalteak txikitzeko egindako aurrerapenen berri ere izaten dute.

Bestalde, AFAGIkoek edonori ematen diote gaixotasunari buruzko informazio zabala: gaixoarekin nola jokatu, gaixoei laguntzeko etxea bera eta altzariak nola moldatu, eta giza zerbitzuetan zein laguntza dauden, batez ere. "Neurologoek ezer gutxi kontaktzen dute gaixotasunaren gainean, eta gero etortzen dira kontuak. Senitartekoei informazio premia handia dute".

Horrez gain, hitzaldi eta programa informatiboen bitartez, gizarteari gaitz horren berri emateko saiakerak ere egiten dihardute, "askotan ez da-eta erraza gaixoen jokaera ulertzea"

LABUR

### Ibarreko zaharren egoitzetako arduradunak Abaroan batuko dira datorren eguaztenean

Datorren eguaztenean, azaroaren 14an, ibarrean dauden hamar zaharren egoitzetako arduradunek bat egingo dute Abaroan eguerdiko 12:00etan. Batzorde horren presidentzia Arrasaten dagoenez, bi hilean behin Abaroan batuko dira. Landuko dituzten gaien artean, datorren urterako hautagaiak eta Aldundiak zahar egoitzendako Udalera bideratutako dirulaguntzak nabarmendu dituzte.

### Ordenagailu gela prestatzeko ahaleginetan dabilta Abaroako zaharren egoitzan

Abaroako arduradunek jakinarazi digutenez, 2000. urte bukaeratik ordenagailu gela bat prestatzeko ahaleginetan dabilta. Dagoeneko batzarrekoek hainbat ordenagailu eta inprimagailu erosi dituzte, eta aurrezki kutxa batzuek beste batzuk eman dizkiete dohaintzan, baina Udalak egokitze lanak noiz egin zain daude.

### Uribarriko zahar egoitzako arduradunek bi berbaldi antolatu dituzte hilabete honetan


Uribarriko zahar egoitzako arduradunek neguko hotzari aurre egin eta zenbait hitzaldi antolatu dituzte datozen egunetarako. Hain zuzen ere, eguaztenean, azaroaren 14an, Osasunaren inguruko gehiegizko ardurak. Hipokondriakoak lelopean. Gero, azaroaren 28an, Gure beldurrak borrokatu lelopean Mercedes Acera hizlari izango dute. Bi berbaldiak gaztelaniaz izango dira.

ZAHARREN AHOTIK

### Josu Otadui

ERREMENTARIA ERRETIRATUA

**1920an jaio zen. Aita errementaria zuen eta Josuk ere ogibide berean lan egin zuen. Gerran ibilitakoa da eta kartzelan ere izan da.**



**Noiz hasi zinen zu errementari?**

1932an, hamabi urterekin. Aita hil eta ni errementari laguntzaile sartu nintzen Bixente Barandiaranekin batera. Gerora, 34an, Mondragoeko Iraultzaren barruan, Orejaren tiroketa entzun, eta hura oraindik bizirik ikusi zuen lehenengoetakoa izan nintzela uste dut, eta Dagoberto Resusta hilda ikusi nuen. Hamasei urterekin gudari izaten ere saiatu ginen (36an). Gero gerran ibili nintzen, behartuta. Eta soldadutza egiten nengoela kartzelan sartu

ninduten, Iruñean, hamalau hilabetez.

**Erremitari moduan, zelan?**

Gerra garaia zen eta utzi egin nuen. Gero, ezkondu egin nintzen; orduan ez zegoen Gizarte Segurantzarik. Fagoren lanean hasi nintzen, etorkizuna ziurtatzeko.

**Larringan**  
GIDARI ESKOLA

Garibai, 5      Basabe ind. FO-7  
Tel.: 943 792296      Tel.: 943 796450  
ARRASATE      ARETXABALETA

**KONTRATAK**  
**IRYROK S.L.**  
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 246  
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 - 79 78 14  
ARRASATE

**CLUB**  
**IYOLA**

Elgetara bidea  
**BERGARA**  
943 76 11 29





ARRASATE  
**Luis Ruiz de Azua**  
Urriaren 29an 33 urte.  
Zorionak eta urte askotarako, bikote!!! Koadrilakoak.



ARRASATE  
**Ricardo Gorosabel**  
Azaroaren 7an 36 urte.



ARRASATE  
**Oihana Garro**  
Azaroaren 11n 22 urte.  
Urte askotarako! Lagunak.



ARRASATE  
**Mikel Loiti**  
Azaroaren 6an 23 urte.  
Zorionak! Lagunak.



ARRASATE  
**Leire Berezibar**  
Urriaren 31n 8 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



ARRASATE  
**Leire Berezibar**  
Azaroaren 10ean 11 urte.  
Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



ARRASATE  
**Marta Ugarte**  
Azaroaren 8an 7 urte.  
Zorionak eta urte askotarako! Ainhoa eta Garbiñe.



ARRASATE  
**Naiara Castillo**  
Urriaren 31n 22 urte. Urte askotarako! Lehengusuak.



ARRASATE  
**Ainhoa Vilches**  
Azaroaren 4an 2 urte.  
Zorionak!!! Arrasateko osaba eta izeben partetik.



ARRASATE  
**Ainhoa Eriz**  
Azaroaren 11n 4 urte.  
Umezaintzako laguntxoaren partetik, zorionak!!!



ARRASATE  
**Jon Ander Eriz**  
Azaroaren 6an 3 urte.  
Umezaintzako laguntxoaren partetik, zorionak!!!



ARRASATE  
**Idoia Romero**  
Urriaren 7an 3 urte. Umezaintzako laguntxoaren partetik, zorionak!!!



ARRASATE  
**Asier González**  
Urriaren 29an 4 urte. Umezaintzako laguntxoaren partetik, zorionak!!!



ARRASATE  
**Maria Cia**  
Urriaren 29an 4 urte. Umezaintzako laguntxoaren partetik, zorionak!!!



ARRASATE  
**Juanita Eguren**  
Irailaren 20an urteak.  
Zorionak!!! Bizi, Izaskun eta Maite biloben partetik.



ARRASATE  
**Xabier Arregi**  
Azaroaren 4an urteak.  
Zorionak!!! Bizi, Izaskun eta Maite biloben partetik.

## BABESLEA

*Juan Manuel Berrueta*

ARGAZKILARIA




- Estudioa
- Erreportaiak
- Bideoa
- Argazkizaleen txokoa

Iturriotz kalea, 24. ARRASATE. Tel.: 943 79 19 71 / 658 75 58 18.






## Adi!

Hurrengo zenbakian, **azaroaren 10etik 23ra** bitarteko zorion agurrak argitaratuko ditugu. Argazkiak martitzenera arte jasoko dira ARRASATE PRESSko egoitzan.




**Zorion itzazu zure lagun eta senitartekoak.**

Zatoz ARRASATE PRESSera argazki batekin eta utzi gure esku!  
Otalora Lizentziaduna, 31.







Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2  
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia  
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95  
ARRASATE



*Salterain*

PVC-zko ate eta  
leihoez gain:  
mocketak,  
zoru arinak,  
kortxoak,  
Louverdrape  
kortinak,  
Kortinoba, testila



**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

**Merkatariok, badatoz  
Gabonak!**

Aurki, zure publizitate kanpaina  
egiten hasi beharko zara.

Ibarreko mediorik eraginkorrenak zure esku  
dituzu: Arrasate Press, Txirritola, Arrasate  
Irratia, GOITB, Goienkaria...  
Goienako publizitate sailak zure neguko  
kanpaina goitik behera eramango dizu.  
Gurekin harremanetan jartzeko,  
deitu 943 71 23 91 telefonora.



# Txirritola

ARAMAIO / Egubakoitza / 2001eko azaroaren 9a / 3. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolora Lizentziaduna, z/g 2500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com

## Herriko lan handietarako dirulaguntza eskatu dio Udalak Aldundiari

UBANE MADERA

Udalak herrian egin beharreko lan handiak egin ahal izateko dirulaguntzak eskatu dizkio Arabako Foru Aldundiari. Besteak beste, Salgo, Errotabari, Barajuen, Untzilla eta Muruko saneamendu lanak egiteko eta Arexolako plazako urbanizaziorako.

Arabako Foru Aldundiak dirulaguntzak ematen ditu urtero, herrietan lan handiak egin ahal izateko. Hain justu, Udalak bere aurrekontuarekin egin ezin dituenak. Inbertsio plan horren barruan, aurten, zazpi eskaera egin ditu Udalak, herrian dauden premiak kontuan hartuta:

Arexolako plazako urbanizazio proiektua; Salgoko hondaruren saneamendu sarea berritzea, argindarra, argiteria publikoa eta telefono sarea lurperatzea eta Errotabarriko saneamendu eta gasifikazio lanak; Barajuen Bentamotz baserria edateko urez hornitu eta hango hodi septikoaren kokagunea aldatzeko laguntza; eta Untzillako eta Muruko saneamendu sarearen zati bat zaharberritzeko eta ur zikinak depuratzeko laguntza.

Bosgarren lekuan, Udaletxeko barne berrikuntza egiteko laguntza eskatu du. Seigarrenean, Arriolako hiri azpiegituren erreforma eta handitzea egiteko laguntza, eta azkenik, Eguzkie-ripako (Solaia barne) ur horniketa, saneamendua eta gasifikazio lanak egiteko laguntza.



UBANE MADERA

Bereziki zenbait auzoetako saneamendu lanak egiteko laguntza eskatu du Udalak.

*Herrian zazpi lan handi egiteko dirulaguntza eskatu du aurten Aramaioko Udalak*

### ALDUNDIAK ERABAKIKO DU

Behin eskaerak jasota, Arabako Foru Aldundiak erabakiko du zein proiekturi eman dirulaguntza eta zeini ez. Eta gero,

*Besteak beste, Arexolako plazako urbanizazio proiektua egiteko laguntza eskatu du*

proiektu hori egiteko behar den diru kopuru osoaren zati bat emango dio Arabako Foru Aldundiak Aramaioko Udalari. Adibidez, Oleta auzoan egiten

*Eskaera guztiak aztertu eta gero, aldundiak erabakiko du laguntza zeini eman*

ari diren lanak iazko foru planetik jasotako dirulaguntza bati esker dabilta egiten, bestela ezinezkoa izango litzatekela argitu baitute.

## LABUR

### Zapatuan eta domekan, San Martin ospatuko da

San Martin dela eta, makina bat ekintza izango dira herrian asteburuan. Zapatuan, liburu baten aurkezpena eta trikitilariak antolatutako ekimenak izango dira. Gauean, antzerkia izango da. Eta domekan, berriz, inguruko karobietan egindako lanen berri emango dute.

### Herriko nagusienei omenaldia egin zieten

Erretiratuen Egunean, besteak beste, herriko emakume eta gizonezko edadetuenak omendu zituzten. Hain justu, aurten emakume edadetuenaren oparia 97 urte dituen Isidra Urtzelaiak jaso du, eta gizonezko edadetuenarena, berriz, 90 urte dituen Justo Ibabek.

### Argazki Rallyrako diapositibak aukeratu behar

Aramaioko II. Argazki Rallyan parte hartu dutenek oraingo astean jaso dituzte egindako argazkien diapositibak. Orain, diapositiba bat aukeratu eta datorren egubakoitza (hilak 16) baino lehen eraman beharko dute Udaletxera. Erabakia 23an jakinaraziko dute.

*Sili Sili*

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

### JEMI TAPIZ DENDA

- Altzarien konponketa eta tapizaketa
- Ibilgailuen konponketa eta tapizaketa
- Sofa-zorroak neurriira

Lantegia: Errebuelta, 6 behea  
Tel.: 943 79 56 23/606 88 33 38  
20500 ARRASATE

### ION LEHIOAK

Leihoak  
Ateak  
Horma armairuak  
Zoruak

Kanpantorra, 2  
Tel./faxes: 943 79 11 35  
20500 ARRASATE

HIES  
BERRI

Tel.: 943 79 26 99



**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIK**

Anbulatorioa (banda) . . . . .	943 76 24 40
Bergarako udaltzaingoa . . . . .	943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa . . . . .	943 76 62 46
Ertzaintza . . . . .	943 76 53 40
Osasun Etxea . . . . .	943 76 24 40
Asepeyo . . . . .	943 76 16 43
Pakea . . . . .	943 76 13 49
Angiozarko medikua . . . . .	943 78 90 27
Antzuolako medikua . . . . .	943 76 62 23
Odol emaleak . . . . .	943 76 16 24
Alkoholiko anonimoak . . . . .	943 76 51 06

**AUTOBUSORDUTEGIA**

<b>ARRASATE</b>	<b>ARAMAIO</b>	<b>GASTEIZ</b>
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
	20:30	20:45
<b>GASTEIZ</b>	<b>ARAMAIO</b>	<b>ARRASATE</b>
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30

**LABURRAK**

**ATXINGO ERREKA**


Oletako auzokideek Eusko Jaurlaritzari Atxingo errekaaren arazoaren berri eman diote. Izan ere, Anboto barrenean dagoen Atxinen sortzen den erreka erdi hutsik dago. Araza ez da berria. Are gehiago, duela bizpahiru aste, erabat sikatu zen erreka. Kontua da Atxingo erreka ura Otxandioko eta Oletako herritarrek hartzen dutela; Otxandiokoek, ordea, behar baino ur gehiago hartzen dute, antza denez, eta ez dute erreka beharrezko ur-emari ekologikorik bueltatzen. Hori dela eta, Oletako batzar administrati- boak, herriko Udalaren babesarekin, egoera azter- tzeke eskatu dio Gasteizko- gobernuari. Euren kezka da Otxandiokoek ura hartzeko eskubidea duten arren ea errekan ur nahikoa uzten duten.

Duela bizpahiru urte hasi zen Atxingo errekan ur maila jaisten. Eta orain, arazo hori aztertzen eta beharrezko neurketak egiten hasiko dira, Atxingo erreka guztiz sikatu ez dadin.

**KULTURA**

**Azkoitira joan da Sagitario lehiaketako euskarazko lehenengo saria**

Sagitario literatura lehiaketaren barruan, Azkoitira joan da eus- kal alorreko lehenengo saria. Hain justu, Gurutz Garmendiak ira- bazi zuen *Mexikotik barrena* lana- rekin. Bigarren Asier Blas Men- doza hernaniarra geratu zen, Txekian, Polonian eta Kroazian oinarritutako lanari esker. Gaz- telaniaz, berriz, Jorge González gasteiztarak irabazi zuen lehe- nengo saria *El avispero caucási- co* lanarekin; Georgian eta Arme- nian oinarritutako bidaia aur- keztu zuen. Eta gaztelaniazko bigarren saria ere Gasteizera joan zen, Ana López de Munainen eskuetara, Himalaian egindako bidaiaren kontakizunarekin. Jende dezente elkartu zen sari banaketan, eta, besteak beste, alkatea eta kultura zinegotzia izan ziren.



**AUZOENIZENAK**

**ANBOTOKO SEÑORIE**

Guztiak bat datoz seinora honek Anboton bizilekua zuela diote- nean. Beste tontor batzuetan ere egonlekua bazeukan eta hone- tan adostasuna ez da erabatekoa: Aloñan, Aizkorrin, Aralarren eta Kurtzebarrin ere bizilekua zue- la esan dute lekukoek.

Izaki gaiztoa dugu denen uste- tan, honentzak olekua laino arte- an baino ez dago.

Zeintzuk ziren izaki honen jarduerak? Eskoba baten gaine- an ibiltzea, dantzan egitea, gauez ota sendorra isiotu eta haren argitasunean urrezko orraziare- kin orraztea, etab.

“Anbotoko Señorie” zeruan ikus zitekeen; suzko bola bat ikusten zen zeuan ziztu bizian zihola. Gure lekukoek artean argitasun hori ikusi dutenak ere badira; egun, izarren bat izango zela esaten dute baina ikusi zute- nean, umeak artean, bene-bene- tan pentsatzen zuten “Anbotoko Señorie” zala: “An, an, an doie Anbotoko Señorie! An nun doien “Anbotoko Señorie!”. Gau eta ilunkaratan ikusten zen, Patxi- ke Ibaberen arabera.

**BOTEPRONTOAN/ Julen Beitia · Margolaria**

*“Oraingo ez dut gura margolari izan. Ondo pasatu gura dut, zaletasun moduan hartu dut”*

**J**ulen Beitia Biteri aramaioa- rrak hirugarren saria iraba- zi du aurtengo aire libreko margo lehiaketako gazte mailan. Hamahiru urte ditu, eta irabazten duen bigarren aldia da. Eskolaz kanpoko jarduera moduan hasi zen margotzen, eta emaitza ezin hobeak lortu ditu; noraino segi- tzeke asmoa duen galdetu diogu guk:

**Etorkizunean margolari?**

Momentuz ez daukat bestelako asmorik, oraingo ez, dut gura margolari izatea. Ondo pasatu gura dut, zaletasun moduan hartu dut.

**Zelan hasi zinen?**

Txikitatik gustatu izan zait margotzea, marratzea; orain dela bost urte, eskolaz kanpoko

jarduera moduan, margotzeko eskolak hartzeko aukera eman ziguten eta nik izena eman nuen. Aramaion bertan.

**Hor segitzen duzu ala lehen baino eskola gehiago hartzen duzu?**

Hor segitzen dut; Rakel Arenaza margolariarekin ikasten dut, zapatuetan, goizez, pare bat orduz.

**Zer gustatzen zaizu margotzea gehien?**

Paisaiak eta pertsonak margotzea, baina pertsona ez daukat oso garatuta. Edozelan ere, Rakelek denetarik margo- tzeke esaten digu.

**Zer margotu duzu aurtengo lehiaketarako?**

Azkoagako eliz ondoko izkina baten dagoen burdinazko



erromara bat. Ondoan duen zuhaitz bat ere agertzen da margolanean. Aramaioko zerbait margotu behar genuen eta detailtxo bat margotu nuen.

**Zelan, zein teknikarekin?**

Argizarizko margoekin margo- tutakoa da, eta bukaeran agoa- rrasa eman nion gaintetik.

**Lehiaketa askotan parte hartzen duzu?**

Aramaiokoan bakarrik. Bederatzi urterekin bidali nuen lehenengo lana Rakelek margo eskolako guztioi esan zigulako.

**Margotzeaz gain, bestelako zaletasunik baduzu?**

Esku pilotan jokatzen dut eta Musika Eskolan soinua ikasten nabil. Horrez gainera, irakur- tzea ere asko gustatzen zait.

**BITTORI**  
**ERRETEGIA**

**Eguneko menua · Kartako menua**  
**Espezialitateak:**  
**legatz kokotxak eta txuletak**

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

**UGARTE**

**Industria**  
**hornidurak**

San Andres auzoa, 2. 5-6 Pab.  
Tel.: 943-71 21 41  
Faxa: 943 - 71 21 40



**Metal aroztegia eta PVC**

Leihoak eta itxierak  
**Egur aroztegia**

Leihoak  
Ateak  
Armairu enpotratuak  
Armairu-fronteak  
Mota guztietako zoruak  
Lixatua eta bernizatua

**Erakusketa eta biltegia:**  
Kale txiki, 3 behe (Musakola)  
Tel eta faxa: 943 77 11 20

**Osagarriak**

Neurrira egindako alfonbrak  
Gortinak, mahai eta aulkiak





## ERRETRATUZAHARRA

Mezak  
kantatzera  
herriko  
abadeengana

**M**ondragoen bazegoen koadri-  
la bat kantatzea gustuko  
zuena. Eta Mondragoeko  
abaderen bat zegoen leku  
guztietara joaten ziren meza kantatze-  
ra. David Arzamendirekin prestatzen  
zituzten kantuak, eta hark zuzentzen  
zituen. Ederto ibiltzen ei ziren, gaine-  
ra: "Kontua da garai haietan gose  
handia izaten zela eta guk, abestu eta  
gero, gehienetan hamarretakoa edo  
merienda izaten genuen".

Ikusten duzuen argazkia Larrinoko  
elizaren aurrealdean dago aterata,  
1943an, hain justu ere. Meza nagusia  
kantatzeko elkartu ziren egun hartan,  
eta gero, gure berriemaileak gogora-  
tzen duen moduan, "sekulako entsala-  
da jan genuen!".

Hauexek agertzen dira argazkian,  
ezkerretik hasita, tente: Felix "Txiki"  
González, Agustin Azkoaga, Bixente  
Etxebarria, Iñaki Arrieta (abesten  
bakarlari ona ei zen), Jose Mari  
Uranga, Felix Sáez de Ibarra (Toledoko



katedraleko organista nagusia),  
Larrinoko abadea, David Arzamendi,  
Ignacio Sáez de Etxarri, Jose Lasa eta  
Jose Aiala.

Makurtuta daudenak, berriz,

honakoak dira, ezkerretik hasita:  
Antonio Balerdi, Roque Garai, Juanito  
Etxebarria, Leandro Ibáñez de Opakua  
"Txomin Txiki", Pedro Zumelaga eta  
Fortunato Bedia.

Argazkia: Pedro Zumelaga  
Informazioa: Pedro Zumelaga  
Urtea: 1943

## NOLAALDATUDIRENGAUZAK


Zarugalde  
zena, eta gaur  
egun dena

**Z**arugalde kalea oso  
esanguratsua izan da beti  
Arrasaterendako. Izena  
esanguratsua da: "Zar" (zahar),  
"Ugal" (garoa) eta "Alde"  
(leku).

Itxuraz, kale honetan bizi  
ziren orduko ijito eta amerika-  
rrak, nahiz eta gaur egun  
egoera bestelakoa izan. Kale  
honetan zegoen San Agustin  
komentua 1904. urtean itxi zen.



± 1950 Kale honetan zegoen "Garaipen arku" San  
Agustin komentuko pasabidea zen.



2001 Arku 1790. urtean eraiki zuten. Argi dago kale  
honetan gauzak asko aldatu direla.



**Gambrinus**  
garagardotegia

- Menua:  
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizentziatua, 40-42  
Tel.: 943 79 53 32




**Berogailua**  
**Bainuen berrikuntza**  
**Iturgintza**

- Erantzun azkarra eta zure neurrira
- Berogailuaren finantzazioa hilabeteko  
10.000 pezetatik aurrera
- Salneurri liluragarriak

Loramendi, 2 behea. Tel.: 943 71 27 73 Mobila: 605 71 27 05

Garagardo ona, giro hobea



**TXIRRITA**

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35





Haizetakoak 1,46 m<sup>2</sup>.

Zenbaki hutsa baino, adimen zabala.



Automobil baten helburua da zu leku batetik bestera eramatea. Baina Peugeot 307 berriari garrantzitsuena ez da ailegatze hutsa, eramaten zaituen espazioa baino. Monobolumenaren leku zabalak eta Berlina baten arimak bat egiten dute 307aren egitura osatzeko, eta, horrela, barrualde zabala, modularitatea eta argitasuna ematen dizkizu. Termikoki isolatutako haizetakoak beroa pilatzea ekiditen du, eta sabaiaren altuerak eta aulkien arteko lekuak bidaiari-leku ezin hobe sortzen dute, erosotasunaren aukera guztietara irekia.

Peugeot 307 gama: gasolina 75 ZPtik 138 ZPra (1.981.000 pezetatik/11.906.05 eurotik). Diesela HDI 70 ZPtik 110 ZPra (2.298.000 pezetatik/13.811.26 eurotik)

**PEUGEOT 307. EZ DA ZENBAKI HUTSA.**

#### ETORMOBIL

Otaola etorbidea 22  
Tel.: 943 20 09 66  
EIBAR

#### EKOMOBIL


Zaldispe auzoa z/g  
Tel.: 943 79 50 71  
ARRASATE

**307**   
PEUGEOT





# Aukera zabalagoa



**TodoMueble KABIA**n erakusketarik zabalena duzu: logelak, egongelak, gatzetxoendako altzariak, bestelako osagariak, dekorazioa... Hainbat leku eta aurrekontutara egokitzen diren altzariak. Gure dekoratzaile profesionalen laguntzarekin eta baldintza ekonomiko ezin hobearekin:

- 6 hilabeteen, deskontuarekin, eskura ordaintzea balitz bezala. Edo
- 24 hilabeteen, interes barik, eta gura baduzu seigarren hilabetetik aurrera has zaitezke ordaintzen.

Badakizu, ona den guztia **TodoMueble KABIA**n aurki dezakezu.

**TODO Mueble** **Kabia**  
DARIA OIA

Gipuzkoa Etorbidea, 28  
Tel. 943 79 27 70 • **ARRASATE**

